


ONETIKAREN MUNDUA MUSIKA GARAIKIDEAREN BIDEZ IKERTU DU IRAKASLE ALTSASUARRAK

Gonzalez Acilu konpositorearen lanaz liburua aurkeztu dute

Hitzaren eta musikaren inguruan eginiko ikerketei esker konpositore garaikide garrantzitsuenetakoa den Agustin Gonzalez Aciluren lanari buruz Marta Curesesek eginiko 'La estética de la tensión' liburua aurkeztu zen atzo Iruñean.

Alberto Barandiaran / Iruñea



Agustin Gonzalez Acilu konpositorearen historia abangoardiarena da.

JOXE LACALLE

Barandiaranen laguntza eskatu zuen Gonzalez Aciluk, euskara eta gaztelania nahastu nahi zituelako bere lanean, hizkuntza ikerketa egin nahi zuelako bere musikarekin. «Nere kezka izan da beti» azaldu zion EGUNKARIARI 1994ko irailean eginiko elkarrizketa batean, «hizkuntzari musikologia, musikal izpiritu guztia ateratzea. Antzinatek oraindik daukagun soinu tresna bakarra hitza da: izan dadila, bada, hitza musikaren sorburua». Joxe Arzteren poema batekin 1977an Iruñean estreinatutako *Arrano Beltza* lanarekin antzeko ikerketak egin zituen altsasuarrak, eta bi lan hauek klasikoak dira dagoeneko musika abangoardistaren barruan. 1979an burutuko zuen *Izena ur izana*, Imanol Mujika Alberdirekin eginiko lanaren ondorioz, eta 1989an *Oi Lur, Hain Hur*, biak egilearentzat euskarak duen indar espresiboak sortuta.

Objetibotasuna, hitzaren *serigrafonia* zen lan horien azken helburua, silaba bakoitzak zituen ezaugarriak, potentzia eta konbinazioen azterketa. Azken urte hauetan, ordea, hitzaren esanahiari, subjektibotasunari erreparatu dio gehiago konposagileak. «Lehen tresna aztertzen nuen, orain Ni-a, kontzeptua» azaldu zuen aipatu elkarrizketan. Oro har, ehun bat musikalana burutu ditu bere bizitzan zehar, azkena joan den hilean Madrilen estreinatuta. 1983an Erriberrin egin ziren Nafarroako Jaialdian eman zuen ikastaro batetik sortu zen Iruñeko Taldea, bere lanaren ikertzaile eta defendatzaile sutsua.

Atzo ere bi musikari nafarrek lotura estu samarra duten beste lanak aurkeztu ziren Iruñean. Gonzalez Aciluk berak Fernando Remacha konposagi-

learen *La maja vestida*, Alba eta *Homenaje a Gongora* lanei buruz eginiko edizio kritikoa eta Emilio Arrietaren *El domino azul* partitura. X

Erdi Aroz hitzaldiak eta filme emanaldiak eratu ditu Eusko Ikaskuntzak

■ Donostian egingo dira ekitaldi guztiak datorren astean zehar

Erredakzioa / Donostia

EUSKO IKASKUNTZAK antolatutako Erdi Aroko arteari buruzko jardunaldiak egingo dira martxoaren 6tik 10era bitartean Donostiako Miramar jauregian, sei unibertsitateko zazpi adituen partaidetzarekin, *Erdi Aroko artearen berrikusketa* izenburupean.

Isidro Bango (Madrilgo Unibertsitate Autonomoa), Beatriz Arizaga (Kantabriako Unibertsitatea), Manuel Valdes (Leongo Unibertsitatea), Clara Fernandez Ladrera (Nafarroako Unibertsitatea), Mari Carmen Lakarra (Zaragozako Unibertsitatea), Dulce Ocon (EHU) eta Agustin Gomez (EHU) dira jardunaldietako hitzaldi eta mahaiinguruetan parte hartuko duten zazpi irakasleak.

Zinema eta Ertaroa zikloa ere eratu du Eusko Ikaskuntzak, Donostiako Kultur Udalen Patronatuaren laguntzaz, aipatu jardunaldiok loturik. Martxoaren 4tik 7ra bitartean lau filme ikusiko dira Lugaritz kultur etxean ziklo honen barruan: Bertrand Tavernierren *La passion Béatrice* (1987) martxoaren 4an, Mario Monicelliren *La Armada Brancaleone* (1966) 5ean, Chris Newbyren *Anchoress* (1922) 6an eta Andrei Tarkovskiren *Andrei Rublev* (1966) 7an. X



oskorri & Maskarada
"landalan"

oskorri

landalan

Egunkaria-ren laguntzaz

ANDOAIN ALLURRALDE POLIKIROLDEGIAN
Martxoaren 2an, larunbatarekin - Gaueko 22:00etan.

'Oratorio Panlingüístico' eta 'Arrano Beltza'. Madrilen be-
rriro, gogoberrituta ekingo zion,
1956an *Tres Lieder* lanarekin
hasia zuen produkzioari, eta
1970an *Oratorio Panlingüístico*
bere lan garrantzitsuenetakoa
aurkeztu zuen. Espainiako Mu-
sika Saria jaso zuen funtsezko
lan hau burutzeko Jose Miguel